

Prentsa oharra

Nota de prensa



Donostiako Udala Innpulso sarearen parte izango da

Udalak hiria 'hiri zientifiko eta teknologiko' gisa indartzeko duen estrategiaren barruan kokatzen da ekintza hau.

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Donostiako Udala Innpulso – Zientzia eta Berrikuntzaren Hirien Sarean sartzea. Izan ere, Donostiak zalantzarik gabeko apustua egin du azken hamarkadan Berrikuntzaren Hiri gisa finkatzeko.

Eneko Goia alkateak adierazi duen bezala, "2010eko Plan Estrategikoan Donostia hiri zientifiko eta teknologiko gisa konfiguratzeari buruzko helburua ezarri zen, sektore berritzaileen garapena sustatuz".

Bokazio horrek aitormena izan zuen 2010eko abenduaren 20an, Donostia Zientziaren eta Berrikuntzaren Hiri izendatu baitzuten, CIN/2502/2010 Aginduak arauturiko deialdiaren esparruan. Agindu horren arabera, Zientziaren eta Berrikuntzaren Hiria izendapena sortu zuten, alde batetik, **balioa emateko tokiko esparruan Zientzia eta Berrikuntza sustatzeko ahalegin handia egiten ari ziren hiri eredugarriei**, eta, beste aldetik, haien ahalmena esparru hau garatzeko funtsezko tresna gisa sustatzeko asmoz.

Testuinguru horretan, Donostia Zientzia eta Berrikuntzako Hirien Sarean sartzea formalizatu nahi da orain. Sare horren helburua da tokiko administrazioek zientzia eta berrikuntzaren arloan egiten dituzten jarduerak aitortzea eta bultzatzea, sareko udalen arteko lankidetzaren bultzatzea, haien ahalmen berritzailea hobetzea eta beste udal batzuentzat eredu izatea, eredu produktiboa eredu ekonomiko eta sozial jasangarri baterantz aldatzen laguntzeko.

Eraginkortasun Energetikoaren Ordenantza

Tokiko Gobernu Batzordeak behin betiko onartu du Eraikuntzako Eraginkortasun Energetikoaren Udal Ordenantza, onartu diren alegazioak gehitu ondoren.

Haurtxokoak eta Gaztelekuak

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du HEZI ZERB S.L.U enpresari esleitzea Aiete, Altza, Amara, Antiguoa, Bidebieta, Egia, Gros, Intxaurren, Martutene eta Etxarrireneko haurtxokoen eta udal Gaztelekuaren sareko zerbitzuak emateko kontratua.

Kontratuaren hasierako epea 5,5 hilabetekoa izango da (2021eko urtarrilaren 16tik 2021eko ekainaren 30era), eta prezioa 584.928 eurokoa izango da. Bi luzapen egiteko aukera izango du: 2021eko irailaren 1etik 2022ko ekainaren 30era, eta 2022ko irailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era. Luzapenen prezioa (10 hilabete) 1.063.505 eurokoa izango da.

Intxaurren Ikastolako patioa

Prensa oharra

Nota de prensa



Tokiko Gobernu Batzordeak onartu egin du Borja Llop Chocarrok idatzitako Intxaurren Ikastolako patioa estaltzeko exekuzio proiektua, 288.343 euroko aurrekontua duena.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak

Tokiko Gobernu Batzordeak Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) ordaintzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu ditu. Zerga horrek erosteko ahalmen txikiena duten familietan duen eragina murrizteko asmoz, zuzeneko diru-laguntza bat ematen zaie 2019ko abenduan Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) onuradun izan diren eta zerga horri aurre egin behar dioten familiei. Laguntza horiek, guztira, 37.000 euroko aurrekontua izango dute.

Era berean, onartu egin dira zaborra biltzeagatik, ur-horniduragatik eta saneamenduagatik tasen kuotak ordaintzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak, eta 200.000 euroko aurrekontua izango dute.

Donostia, 2020ko abenduak 22